

Gasteizko Udala. Euskara Zerbitzua

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Gasteiz 2019-2022



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

AURKIBIDEA

• Planaren egitura	3
• Metodologia eta prozesua	4
• Testuingurua	5
• Helburu nagusia	7
• Planaren oinarriak	8
• Ardatzak	10
• Gizarte-erabilera	11
○ Aisialdia eta kirola	
○ Kultura	
○ Hedabideak	
○ Arlo sozioekonomikoa	
• Hitzunak	18
○ Hezkuntza eta familia	
○ Gazteak	
○ Migrazioa	
○ Helduak euskalduntzea	
○ Sentsibilizazioa eta aktibazioa	
• Kudeaketa-eredua	27
○ Zeharlerrotasuna	
○ Jarraipena eta ebaluazioa. Parte-hartzea	
○ Komunikazioa	

PLANAREN EGITURA

Aurreko planetan zenbait multzotan antolatu izan ditugu Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak proposatzen zituen arloak. 2013-2017 plangintzaldiak, esate baterako, honako atalak izan ditu:

- Helduen Euskalduntzea
- Irakaskuntza eta familia bidezko transmisioa
- Aisialdia eta kirolak
- Merkataritza eta ostalaritza
- Kultura eta hedabideak
- Gazteak
- Genero berdintasuna

Oraingoan ere, ESEPe lantzen dituen arloak abiapuntutzat hartu ditugu, baina Arabako Euskararen Foru Zerbitzuak erabili duen eskema erabili dugu arlo horiek antolatzeko. Izan ere, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoak hiru ardatzetan antolatzen ditu 2019-2022 urte bitarteko erronkak eta ekintzak: Gizarte-erabilera, Hitzun berriak eta Kudeaketa-eredua:

- Gizarte-erabilera: euskara erabiltzeko uneak eta guneak ditu jomugan, euskararen erabilera-aukerak handitzeko eta indartzeko herritarren ohiko gizarte-jardueretan.
- Hitzun berriak: hitzunak eta norbanakoak ditu helburu.
- Kudeaketa-eredua: lan egiteko era deskribatzen du, eta plana nola kudeatu nahi den gogoetatzen du.

Arloak antolatzeko eskema egokia eta erabilgarria iruditu zaigu, eta egokia da eskema bera erabiltzea, Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzeta eta sinergiak errazte aldera.

Horiez gain, bi atal gehigarri atondu ditugu: (a) planaren gidari izan behar diren printzipioak, eta (b) testuingurua, non eztabaidan zehar sortu diren kezkak eta gaiak ageri diren, batzuk ekintza-planean jasotzeko modukoak ez badira ere.

Arloz arlo, atal bakoitzaren baitan, lehen-lehenik argazki txiki bat egin nahi izan dugu, testuingurua emateko; bigarrenik eztabaidetan zehar sortu diren indar-ideiak esplizitatu; eta azkenik, erronkak eta ekintzak zerrendatu dira.

METODOLOGIA ETA PROZESUA

Hemen aurkezten dugun dokumentua Euskara Elkargunean eta berariaz antolatutako hainbat kontraste bileretan sortutako dokumentua da.

EBPN-ESEP 2013-2017 plan estrategikoak gidatu du Udalaren azken bost urteetako jarduna. 2018ko lehen sehilabetekoan plan horren ebaluazioa egin eta kontrastatu egin da, hainbat arlotako eragileekin (helduen euskalduntzea, merkataritza, aisialdia, kirola...) eta Elkarguneko kideekin. Ekainean ebaluazioa aurkeztu eta irailean Elkarguneak horren gainean lan egin zuen. Ekarpen guztiak jaso eta ebaluazioa ontzat eman zen.

Bilera horietan, oro har, ontzat eman zen aurreko plangintzaldiaren markoa. Landutako helburuak eta ekintzak egokitzat jo eta oraindik ere baliozkoak eta beharrezkoak direla baloratu zen. Zuzendu beharrekoak definitu ziren eta hurrengo plangintzaldian urrats berriak emateko gakoak eta palankak bilatu beharra azpimarratu zen.

2018ko abenduan eztabaida saio irekia egin zen Oihaneder Euskararen Etxean, Aztiker enpresaren laguntzarekin. Bertan 50 bat pertsona bildu zen, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren inguruan hausnartzeko: euskararen mundukoak zein bestelako esparruetan lan egiten zuten pertsonak ziren.

Saio horretako ideiak sailkatu eta antolatu ziren indar-ideiak identifikatzeko: etorkizuneko erronkak, alegia. Erronka horietatik abiatuta, bigarren dokumentu bat sortu zen, eztabaida errazteko. Horretarako honako hauek erabili genituen: (a) aurreko planaren ekintzak eta ebaluazioan jasotako iritziak, (b) bileretan jasotako proposamenak eta (c) Arabako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoak landutakoak.

Hiru ideia-multzo identifikatu ziren:

- (a) Udalak hartu beharreko konpromisoei eta funtzionatzeko moduari dagozkion ideiak. Neurri batean, aurreko plangintzaldian ere ageri ziren horietako gehienak. Planaren printzipioak dira.
- (b) Erronkak, lan-ildoak eta ekintza zehatzak proposatzen dituztenak. Eskuartean duzuen dokumentu honen atal nagusia horiek osatzen dute.
- (c) Bestelako gaiak, euskararen ikuspegitik garrantzitsuak direnak eta euskararen munduko taldeak eta eragileak bereziki kezkatu arren, ekintza batera eramateko modukoak ez direnak. Horiek ere planean jaso ditugu, eragileen agendan baitaude, nahiz eta gero horietako batzuk ekintzetara eraman ez.

Otsailaren 14an Euskara Elkargunean aurkeztu zen. Azken ekarpenak jaso ondoren, dokumentua amaitutzat eman dugu.

TESTUINGURUA

Esan bezala, testu hau parte-hartzeko prozesu baten bidez sortu da, non Euskara Elkarguneak eta hainbat gizarte eragilek parte hartu duten. Euskara Elkaguneak bat egin du, oro har, diagnostikoarekin eta beste zenbait puntu eta kezka ere nabarmendu nahi izan ditu, gabeziak identifikatze aldera.

Diagnostikoa

Erabilera da erronka. Aurreko plangintzetan esan dugun bezala, Gasteiz hiri jendetsua izanik eta euskaldunak sakabanatuak daudenez, garrantzitsua da herritarrek harremanak euskaraz izateko guneak eta aukerak sustatzea. Beste era batera esanda, garrantzitsua da euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea. Helburua euskarazko harreman-sareak indartzea bada, horretarako euskaraz jarduteko baldintzak eta testuinguru egokiak sortu behar dira.

Hizkuntza-sozializazioaren ideia garrantzitsua da. Euskara belaunez belauri ondorengoetartzea sozializazio-prozesua da, beste ezereen gainera. Horri begira, aisialdiak eta kirolak garrantzia berezia dute plan honen baitan, eragin handia baitute haur eta gazteen sozializazioan. Aisialdia eta kirola bereziki zaindu beharra dago, eta urrats sendoak eman: eskaintza eta irizpideak hobetu, sistematizatu, jardunbide egokiak aztertu eta zabaldu, eta abar.

Ez da, hala ere, inolako arlorik baztertu behar. Pausoak eman behar dira kulturari, arlo sozioekonomikoan, hedabideetan, etxean, kalean eta abar.

Gasteizen bikote mistoek eta ikastetxean edo euskaltegian euskaldundu diren guraso gazteek euskara transmititzeko orduan izango duten jokabidea da giltzarrietako bat. Guraso horien seme-alabak euskaldunak izango dira, baina baliteke familia askotan euskararen egoera ahulegia izatea erabateko transmisioa bermatzeko; are gehiago guraso horien hizkuntza-gaitasuna "erabatekoa" ez denean.

Gazteen artean erdia baino gehiago euskaldunak dira, eta % 80 inguru dira neurri batean ala bestean euskara ulertzen dutenak. Oso argazki interesgarria da, etorkizunari begira jarri behar gaituena. Urrats berriak emateko baldintzak prestatu behar dira.

Hezkuntzari eta Euskaltegiei dagokienez, beharrezkoa da bi sektore horiekin lankidetzaren sendoak izatea. Biak ala biak zentralak dira, Gasteizen historikoki jokatu duten eta jokatuko duten paperagatik eta mugitzen duten jende kopuruagatik.

Euskara Elkaguneak nabarmendu nahi izan dituen bestelako kezka

Dokumentu hau sortzeko egin ditugun bilera eta saioetan hainbat gai sortu dira Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren egokitzeko zailak direnak, baina bertan parte hartu duten pertsonentzat garrantzitsuak direnak. Gai horiek dokumentu honetara ekarri dira, nahiz eta ekintzetan leku garbirik ez izan.

Honako hauek dira:

- Zeharlerrotasunari lehen mailako garrantzia ematen diogu. Etengabe ageri da. Merezki du horretan sakontzea eta zeharlerrotasuna nola ulertzen dugun eztabaidatzea.
- Euskararen gizarte-eragileek adierazi dute euskarak leku nabarmenagoa izan beharko lukeela Udalaren kultura-politikan. Kultura-politikaren dimentsio linguistikoa landu beharra azpimarratu da.
- Azken aldian agerian dira immigrazioaren inguruan hezkuntza-sistemak dituen gabeziak eta ajeak.


Euskara Sustatzeko Ekintza Planak muga nabarmenak ditu arlo horretan jarduteko.

- Atzera begira, Kafe Antzokia proiektua abian jartzeko prozesu luzea eta korapilatsua izan da. Proiektua bideraturik badago ere, horrek ondoeza sortu izan du batzuetan.
- Elkargunearen ekimenez, lantalde bat sortu zen Udal Ordenantzak berritzeko prozesua bultzatzeko. Helburua, batez ere, eztabaida irekitzea izan da. Zailtasunak ikusi dira talde politikoak eta gizarte eragileak prozesu horretan inplikatzeko.
- Helduen euskalduntzearen finantzazioa izan da eztabaidagaia. Ideia zabaldu da euskara ikastea doakoa izatera jo beharra dagoela, baina zaila izaten ari da pauso horiek aurrera eramatea.
- Hedabideen inguruan ere sortu da kezka. Euskarazko hedabideak indartzeari begira, baloratu egin da publizitate instituzionala egiteko irizpideen artean hizkuntza aldagaia ere kontuan hartzeko urratsak eman beharra dagoela.

HELBURU NAGUSIA

Gasteizko ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Planak bat egiten du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak izan dituen helburuekin. Honakoak, alegia:

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; eta maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.



PLANAREN OINARRIAK

Euskara Sustatzeko Ekintza Planak honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Euskararen gizarte-erakundeekin elkarlanean egitea > OSAGARRITASUNA
- Jarraipenerako mekanismoak izatea, udalaren barruan zein udaletik kanpo > ELKARGUNEAREN PROTAGONISMOA
- Arloz arlo gizarte eragileen inplikazioa bilatzea > INPLIKAZIOA eta AKTIBAZIOA
- Udalak berak pausoak ematea, eta eredia izatea > SUSTAPEN AKTIBOA
- Udal osoaren inplikazioa eragitea, ez soilik Euskara Zerbitzuarena > ZEHARLERROTASUNA
- Komunikazioari garrantzia ematea > EUSKARAREN KOMUNIKAZIOA
- Baliabideez hornitua > BALIABIDEAK

Ez dira berriak. Asko eta asko aurreko plangintzaldian ere ageri ziren. Oraingoan printzipio horiek berretsi eta horietan sakontzeko beharra nabarmendu nahi du Gasteizko Udalak.

Osagarritasuna.

Udalak eragile guztiekin batera lan egin nahi du: bai gainontzeko instituzioekin eta bai gizarte eragileekin. Osagarritasuna eta indarrak batzea dira Udalaren borondatea, eta ez inoren lana ordezkatzeari. Alde horretatik dinamika bateratuak bultzatuko ditu, eraginkortasuna bilatze aldera.

Euskara Elkargunea.

Gaur-gaurkoz Euskara Elkargunea da Udalaren ordezkariak, euskararen gizarte erakundeak eta hizkuntzaren normalizazioan interesa duten pertsonak biltzeko gunea. Gune dinamiko eta irekia izatea nahi guke: unean uneko lehentasunak aztertzeko eta proposamen berriak egiteko. Euskara Elkargunearen funtzioetako bat da Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarraipena egitea.

Inplikazioa eta aktibazioa.

2018. urtean egin den Euskaraldia mugarri bat izan da hainbat arlotan. Agerian utzi du hizkuntzaren sustapena ekintza kolektiboa dela eta behar-beharrezkoa dela lidergoa partekatzea. ESEPe jomuga dituen arloetako eragileen inplikazioa bilatuko du eta haien protagonismoa bultzatu: arlo sozioekonomikoan, aisialdian, kirolean, hezkuntzan... Gasteizko Udalak hainbat urrats eman ditu bide horretatik eta horietan sakontzea da erronka.

Sustapen aktiboa.

Udalak garrantzia berezia eman nahi dio euskararen sustapenari eta era zabalean landu nahi du bere jarduera eta komunikazio guztietan. Informazio-, sentsibilizazio- eta komunikazio-ekintza orokorrak garrantzitsuak dira; baina, are garrantzitsuagoa udalaren beraren koherentzia. Koherentzia da Udalak euskararen sustapenari egin ahal dion ekarpenik onena.

Izan ere, sustapen aktiboak bi alde ditu: (a) oreka bilatzen duten sustapen-ekintzak edota ekintza positiboak planifikatzea eta gauzatzea, eta (b) proiektuetan hizkuntzaren perspektiba eta hizkuntza sustapenaren dimentsioa integratzea.

Zeharlerrotasuna.

Zeharlerrotasuna ez da ezaugarri estatiko bat. Etengabe landu beharreko puntu bat da eta inplikazio eta aukera interesagarriak dakartza; hala nola:

- Zeharlerrotasunak aukerak zabaltzen ditu sail eta zerbitzu guztiek irizpide egokiak barneratzeko. Gainera, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren erronkekin eta ekintzekin duten harremana dela-eta, atal batzuk harago ere joan daitezke, eta irizpide egokiak ez ezik, irizpide eredugarriak zein diren hausnartu beharko lukete.
- Zeharlerrotasunak, era berean, hizkuntza-normalkuntza sail guztion eginkizuna dela barneratzeko aukera dakar, eta eginkizun hori beren jardun osoari dagokiola ohartzeko, eta ez soilik kanpoko komunikazioei. Proiektuetan hizkuntza-normalizazioaren dimentsioa integratzeko bideak bilatu beharko dira.
- Zeharlerrotasunak lankidetzarako aukerak ugaritu beharko lituzke, eta hemengo ekintza eta programa batzuk hainbat departamenturekin batera lantzeko aukera eman.

Euskararen komunikazioa.

Bi aldetatik landu behar da komunikazioa Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitan.

(a) Garrantzitsua da zer egiten dugun kontatzea, euskararen inguruan instituzioek zein gizarte-eragileek egiten dugun lanaren balioa nabarmentzeko eta aitortzeko.

(b) Euskararen eta hizkuntza-aniztasunaren balioak ere nabarmendu eta azpimarratu behar dira, eta euskararen aldeko giro soziala indartu, datozen erronkei hobeto aurre egiteko.

Kanpainetatik harago --horiek ere beharko dira-- lan jarraitua eta diskurtsoa zaintzea da garrantzitsua. Funtsezkoa da planaren bidez diskurtso sendoa, erakargarria eta inklusiboa zabaltzea.

Baliabideak.

Udalak ontzat ematen ditu dokumentu honetan jasotako erronkak eta ekintzak. Urtez urte ekintzak zenbatetsi, eta behar diren aurrekontuak proposatuko dira.

ARDATZAK

A. Gizarte-erabilera

- A.1. Aisialdia eta kirola
- A.2. Kultura
- A.3. Hedabideak
- A.4. Arlo sozioekonomikoa

B. Hitzunak

- B.5. Hezkuntza eta familia
- B.6. Gazteak
- B.7. Migrazioa
- B.8. Helduak euskalduntzea
- B.9. Sentsibilizazioa eta aktibazioa

C. Kudeaketa-eredua

- C.10. Zeharlerrotasuna
- C.11. Jarraipena eta ebaluazioa. Parte-hartzea
- C.12. Komunikazioa



A. GIZARTE-ERABILERA

A.1 AISIALDI ETA KIROLA

Oso arlo anitza da aisialdia eta kirola. Eragile asko dago inplikatur. Siadeco enpresaren bidez 2014an egin genuen azken azterketa batean, arlo honetan eragiten zuten 286 entitateko direktorio bat osatu genuen: guraso-elkarteak, kirol-federazio eta klubak, zerbitzu-enpresa eta aisialdi-taldeak

Horietan, euskararen egoera honela laburbil daiteke:

- Ekitaldi ugari antolatzen da, zaila da hizkuntza-irizpideen jarraipen zehatza egitea.
- Bertan jende ugari parte hartzen du: batzuk langileak dira, beste batzuk boluntarioak.
- Euskararen presentzia txikiagoa da kirol-federazioen ekintzetan (% 7,3 inguru) eta handiagoa guraso elkarteek antolatutakoetan (% 55,4). Enpresak hartzaileen eskaerara egokitzen dira, besterik gabe.

Udalaren eskaintzan euskararen egoera hobea da haur eta gaztetxoek kasuan, helduen kasuan baino: helduen kasuan jardueren % 39 da euskaraz edo ele bietan, eta haurren kasuan kopuru hori % 95era iristen da (% 60 eta % 35, hurrenez hurren). Aurrerapausoak eman badira ere, datuak ez dira asetzeko modukoak. Pausoak ematen jarraitu behar da, batez ere kirol arloan, Udalaren eskaintza hobetzen.

Guraso-elkarteak eta ikastetxeak eragile garrantzitsuak dira aisialdiaren eta kirolaren arloan, beren jardunaren parte handi bat horretara bideratzen baitute. Eskola-orduz kanpoko ekintzetan egoera ez da sarri pentsatu ohi dugun bezain aurreratua. Diagnostiko zehatza egiteko zailtasunak egonik ere, hutsune nabarmenak ikusi dira, batez ere, jarduerak ikastetxeetatik kanpo egiten direnean eta beste eragileen eskutan geratzen direnean (kirol-taldeak...).

Indar-ideiak

- Beharrezkoa da udal-jardueretan eta udalaren laguntza duten ekintzetan hizkuntza-irizpide argiak izatea eta horien jarraipena egitea. Udalaren irizpideak eredugarriak izan behar dira.
- Aisialdiaren eta kirolaren arloan euskararen erabilera sustatzea eragileen ekimena izatea sustatu nahi dugu. Eragile inplikatuak sortu. Elkarte, enpresa edota entitateetan euskararen erabilera indartu nahi duten pertsonak identifikatu eta saretu nahi ditugu.
- Azken urteetan ekimen interesgarriak egon dira aisialdia zein kirola euskaraz eskaintzeko: Euskharan, Igandeak jai, guraso elkarteetako ekimenak... Batzuk berriak dira; beste batzuk oso kontsolidatuta daude. Gasteizko Udalak ekimen horiek lagundu eta sendotu behar ditu. Ekintza horiek dinamikoak izatea nahi genuke eta urtez urte hobetzen,osatzen eta garatzen joan.

Erronkak eta ekintzak

A.1.1 Hizkuntza-irizpideak landu eta ezarri, haur eta gazteak tartean direnean euskarak lehentasuna izateko.

E.1.1.1. Arlo hauekin lotura duten zerbitzuekin lan egin. Programa, hitzarmen eta dirulaguntzen

mapa bat egin. Bakoitzaren hizkuntza irizpideak identifikatu eta hobekuntzak proposatu.

E.1.1.2. Horien artean praktika aurreratuak garatu. Bi-hiru programa identifikatu, esperimendatzeko eta era intentsiboan lan egiteko: adib. Udalaren udalekuak, yoga familiarentzat, talde elebidunak...

E.1.2. Kirol arloan Marka eta Erronka programa antolatu: topaketa izatetik programa integrala izatera iragan. Ekintza guztiak programa horren baitan kontestualizatzea.

E.1.2.1. Topaketa 2 urtean behin.

E.1.2.2. Eragileekin komunikazioa mantendu: berripapera, bloga, sare sozialak...

E.1.2.3. Kirol Elkarteetan euskara-planak egiten jarraitu eta Praktika Komunitatea osatu.

E.1.2.4. Arabako talde eragilea osatu.

E.1.2.5. Zerbitzu-eskaintza berrituz joan: itzulpenak, ikastaroak, dirulaguntzak.

E.1.2.6. Komunikazioa: kirol-ekintzetan euskararen erabilera indartzeko euskarriak ikusgai jarri, kirol-jarduera espezifikoak antolatu *euskara eta kirola* lotura bistaratzeko.

E.1.3. Aisialdian erabilera indartzeko programa integrala antolatu, kirolaren bide beretik

E.1.3.1. Gasteizko eta Arabako aisialdi arloa mapeatzen jarraitu beharra dago: diagnostikoa egin, eragileak identifikatu eta sareak sortu.

E.1.3.2. Aisialdiko topaketa antolatu, bi urtean behin.

E.1.3.3. Eragile nagusiak koordinatzen hasi eta Praktika Komunitatea osatu. Baliabideak eman.

E.1.3.4. Jardunbide onak identifikatu eta proiektuen laborategia sortu.

E.1.3.5. Hitzarmenak egin, hainbat jarduera egoki babesteko: Euskharan, Tinko.

E.1.3.6. Dirulaguntzak eman, elkarten proiektuak bideratzeko: elkarteak, guraso-elkarteak.

A.2. KULTURA

Zaila da Gasteizko kultura-programazioa euskararen ikuspegitik aztertzea. Haur eta gaztetxoei begira egiten diren programetan eta jardueretan euskarak leku garrantzitsua du, baina hurrengo adin-tarteetarako programazioetan bestelako argazkia ikusten da.

Oro har, aurreko plangintzaldian zehar hobekuntzak nabaritu dira udalaren programa eta ekintza gehienetan. Hobekuntza horiek, halere, ez-nahikoak direla uste dute eragileek, eta azterketa sakonagoa egitea proposatzen dute.

Indar-ideiak

- Bi ikuspegi bateratu beharra aldarrikatu genuen aurreko plangintzaldian: (a) euskararen presentzia soziala bermatu nahi dugun neurrian, garrantzitsua da euskarak hiriko bizitza kulturalean leku egokia izatea (b) eta, era berean, euskarazko kulturgintzak dituen beharrak eta euskararen komunitate linguistikoak dituenak aztertu eta asebate behar dira.
- Oro har, Euskara Zerbitzuaren eta Kultura Zerbitzuaren arteko koordinazioa eta lankidetzak handiago eskatzen da. Badago elkarrekin zer landu: euskara planaren dimentsio kulturala eta kultura planaren dimentsio linguistikoa, alegia.

Erronkak eta ekintzak

E.2.1. Euskarazko kulturgintzaren transmisioarekin zerikusia duten programak eta ekintzak antolatu eta ikusgarritasuna eman.

E.2.1.1. Ikastetxeetan euskarazko kulturgintzaren transmisioaren inguruan dauden beharrak aztertu, eta —Hezkuntza Zerbitzuarekin batera— beharrak asetzeko programa bat (gutxienez) abian jarri. Ildo berean, *Bertsolaritza eskolan* programaren jarraipena bermatu.

E.2.1.2. Euskararen Agenda garatzen jarraitu eta euskarazko jardueri nabarmentasuna eman. Euskararen Agenda proiektua ez da soilik ekintzak orri bakar batean bilduta izatea, batez ere euskarazko kultur ekintzek ahalik eta inpaktu gehien izatea da helburua.

E.2.1.3. Gasteizko Kafe Antzokiaren eta Euskara Zerbitzuaren arteko lankidetzak adostu eta antolatu, batez ere hurrengo faseari begira.

E.2.1.4. Euskararen asteari buruzko eztabaida zabaldu: edukiz hornitu.

E.2.2. Euskarazko kulturaren balio-kate osoan lan egitea beharrezkoa izanik ere, Euskara Zerbitzuak sormena sustatzen lan egin beharko luke bereziki, batez ere jende gaztearekin.

E.2.2.1. Gazte Sortzaileak antolatzen jarraitu.

E.2.2.2. Gazte sortzaile (edo sortzaile gazteak) saretzen lan egin. Adin ezberdinetako gazteak elkar ezagutzea eta sinergiak sortzea helburu duten topaketak edo ekintzak antolatu.

E.2.2.3. Euskarazko kulturgintzari buruzko eztabaida zabaldu. Lan-mahai bat osatu. Beharrak non dauden aztertu beharra dago, Euskara Zerbitzuaren papera zein den, “euskaratik eta euskaraz” esaten dugunean zer esan nahi dugun.

E.2.3. Udalaren baitan dauden planetan euskararen erabilera ziurtatzen lagundu

E.2.3.1. Kulturaren plan estrategikoaren baitan antolatzen diren lantalde edota ekimenetan parte hartu.

A.3. HEDABIDEAK

Sarri behar beste garrantzia eman ez bazaie ere, hedabideen sektorea estrategikoa da hizkuntzaren normalizazioaren bidean. Haien ekarpena ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera indartzeko eta aldi berean hizkuntza horretan gauzatzen diren kultura jarduerak hedatzeko. Bide horretan bereziki azpimarratzekoa iruditzen zaigu tokiko hedabideen garrantzia; batez ere, beren helburuen artean euskararen sustapena denean, eta ekimen soziala oinarri dutenean.

Egun, Gasteizen, bi hedabide dago euskaraz funtzionatzen dutenak: Alea eta Halabedi2. Biek Gasteizen dute egoitza eta Araba mailako perspektibatik lan egiten dute.

Indar-ideiak

- Euskarazko hedabideen finantzazioa aztertzen eta egokitzeko proposamena prestatzen ari da Eusko Jaurlaritzak. Alde horretatik Udalak paper subsidiarioa izan beharko luke, eta euskara hutsezko bertoko hedabideak laguntzen jarraitu.

Erronkak eta ekintzak

E.3.1. Gasteizko euskarazko tokiko hedabideen bideragarritasunean eta zabalkundeetan lagundu.

E.3.1.1. Dirulaguntza deialdia egin, urtez urte.

A.4. ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Inkesta soziolinguistikoaren arabera, Arabako herritarren % 4,8 dira dendetan euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak: hau da, euskara gaztelania beste edo gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak. Kopurua handiagoa da, dendetan euskara noizbehinka erabiltzen dutenak erantsiz gero. Edonola ere, euskararen erabilera komertzioan inkestak neurtzen dituen gainerako arloetan baino txikiagoa da (udalean, osasun-zerbitzuetan, lankideekin...).

Askoz datu zehatzagorik ez badago ere, euskarak arlo sozioekonomikoan inpaktu txikia duela antzematen da. Enpresen artean gutxi dira euskararen erabilera sustatzeko ekimenak abian dituztenak. Gehienek merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako sektorearekin dute zerikusia.

Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarrearen datuen arabera, 2018an Gasteizko 119 entitatek egin zuten ebaluazioa, denak arlo sozioekonomikokoak ez baziren ere.

Udalak azken plangintzaldian antolatu dituen ekimenetan, urtez urte, 125 bat establezimenduk parte hartu dute, aurrerapausoak emateko. Kasu gehienetan aurrerapauso apalak izan dira: hizkuntza paisaiari edo itzulpengintzari lotutakoak

Indar-ideiak

- Oraindik ere merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako sektoreak dira gure lehentasunak. Arlo horretan eragile garrantzitsuak daude, eta sustapenaren bidetik jarraitzeko borondatea dago.
- Bi estrategia erabili dira orain arte. Batetik, (a) merkatarari, ostalari eta profesionalek pausoak eman ahala, hori bisualizatzea eta horren balioa agerian jartzea, eta bestetik (b) zerbitzu eskaintza zabala antolatzea, urrats praktikoak emateko. Oro har, estrategiak egokiak direla baloratzen da; inpaktua da arazoa. Sektorearen egoera kontuan izanik, ahalik eta erraztasun gehien eman beharko lirateke. Euskara sustatzeak ez luke aparteko gasturik ekarri beharko: laguntza-sistema zabala behar da, egoera ekonomikoa oztopoa ez izateko.
- Hainbat ekimen dago gutxi-asko kontsolidatuak: Aenkomer Saria, Bai Euskarari, Araban Bai... Garrantzitsua da horiek guztiak agenda bakar batera ekartzea, sinergiak osatze aldera.

Erronkak eta ekintzak

E.4.1. Euskararen presentzia eta erabilera indartzeko baliabideak eta erraztasunak eman.

E.4.1.1. Bai Euskarari eta Bikain ziurtagiriak sustatu, enpresetan eta establezimenduetan urratsak emateko sistematika moduan. Horien zabalkundean jardun.

E.4.1.1.1. Bai Euskarari ziurtagiriarekin hitzarmena.

E.4.1.2. Euskararen presentzia eta erabilera bermatzera zuzendutako gastuak diruz laguntzeko deialdia antolatu.

E.4.1.3. Itzulpen-zerbitzua egokitu, eta eskatzaileei konpromisoak eskatu.

E.4.1.4. Produktuen eta zerbitzuen katalogoa egokitu.

E.4.2. Lidergo konpartituak eta erreferenteak sortu eta garatu

- E.4.2.1. Koordinazio-taldea osatu eta urtez urte agenda bateratua sortu. Koordinazioa Udaleko Merkataritza Zerbitzuarekin.
- E.4.2.2. Koordinazioa Arabako Lanabes taldearekin.
- E.4.2.3. Hainbat elkartek antolatzen dituzten sariak balioetsi eta egitasmo horiek lagundu.
- E.4.2.4. Gasteizen Bai kanpaina berriro ere martxan jarri. Urtez urte helburu zehatzak jarri eta zerbitzuen eskaintzarekin lotu.

B. HIZTUNAK

B.5. HEZKUNTZA ETA FAMILIA

A ereduak oraindik ere indarra du Gasteizen, eta horrek kezka sortzen badu ere, bilakaera baikorra dela esan behar da. Kontuan izan behar da hezkuntza arloan aldaketak geldoak direla: orain egiten diren hautuak 12 urte barru ikusiko dira estatistiketan. 2017-2018 ikasturtean, esate baterako, Araban, Haur Hezkuntzan haurren % 65 D ereduan zeuden eta % 32 B ereduan. Lehen Hezkuntzaren kasuan, % 57 daude D ereduan eta % 38 B ereduan.

Familia bidezko transmisioari dagokionez, aldeak daude gurasoen hizkuntza tipologiaren arabera: soziolinguistika inkestaren arabera, biak euskaldunak direnean eta bien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 100ek euskara jasotzen dute etxean; bi gurasoak euskaldunberriak direnean, ordea, % 30ek euskara jasoko dute eta % 51k euskara eta gaztelania, biak batera. Edozein kasutan ere, etxean lortzen ez dena eskolaren bidez lortzen da ia kasu guztietan.

Indar-ideiak

- Euskaltegiekin batera, eskola izan da Gasteizko euskararen aurrerabidearen eragile nagusia. Hezkuntza arloko eragileek, datozen urteetan ere, funtsezko papera jokatu behar dute, Gasteizen euskara indarberritzeko. Inork ez du ukatzen hezkuntzan bertan, oraindik ere, badagoela zereginik, baina, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitan, berariaz landu beharreko arloa baino areago, euskararen erabilera azkartzeko baliabidea eta plataforma da hezkuntza.
- Ikastetxeetako normalkuntza-programekin batera, eta sarritan horrelako programarik ez dagoen lekuetan ere, guraso-elkarteak dira eskolaz kanpo euskararen normalizazioaren ardura hartzen dutenak. Elkarre horiek Udalaren sostengua eta laguntza behar dute, ardura horri aurre egiteko.
- Familia askotan euskararen egoera ahulegia izango da erabateko transmisioa bermatzeko; are gehiago guraso horien hizkuntza gaitasuna "erabatekoa" ez denean. Familia horien ingurune linguistikoa aberastuko duten produktuak eta zerbitzuak eskaintzea da erronka: batez ere aisialdiari lotutakoak.

Erronkak eta ekintzak

E.5.1. Hezkuntza arloan, eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzak bermatzeko egitasmoak eta egiturak abian jarri.

E.5.1.2. Hezkuntzaren mahaia osatu, Gasteiz edo Araba mailan, arloko eragile nagusiekin, koordinazio iraunkorra bermatzeko eta hezkuntzatik zer nolako ekarpenak egin daitezkeen erabakitzeko.

E.5.1.3. Gasteizko Euskal Kurrikuluari buruzko proiektua abian jarri.

Hainbat udalerritan arrakastaz abiatu dira horrelako proiektuak. Bi galdera gakori erantzutea da kontua: (a) Euskararen eta euskalgintzaren ikuspegitik, zein dira Gasteizko gazte batek derrigorrezko hezkuntza amaitzen duenean euskarari buruz eta Gasteizi buruz jakin beharko lituzkeen gutxieneko edukiak? (b) Eduki horiek nola eraman beharko genituzke ikastetxeetara? Udalak horretan zertan lagun dezake?

E.5.2. Gasteizko berritzegunearekin koordinatu, eskolaz kanpoko eta inguruko ekintzetan eragiteko.

E.5.2.1. Berritzegunearekin batera jardunbide onen katalogoa egin, eta Udalaren zerbitzu-eskaintza zein dirulaguntza-deialdia, katalogo horrekin lotu.

E.5.3. Baliabide sorta eskaintzen jarraitu, ikastetxeetan familien sentsibilizazioan eta erabileran eragiteko.

E.5.3.1. Gasteiz Hiri Hezitzailearen esparruan antolatzen dituen programak **Hezkuntza-programak** izeneko katalogo batean biltzen ditu Udalak. Katalogo horretan familien sentsibilizazioa eta erabilera helburu duten programak eskaini: hitzaldiak, lantegiak...

E.5.3.2. Helburu hori duten proiektuak jaso, euskararen erabilera sustatzeko proiektuen dirulaguntza-deialdiaren baitan.

E.5.3.3. Aisialdi giroan familian euskararen erabilera eta sentsibilizazioa indartzea da **Igandeak Jai** programaren helburua. Programa horri jarraipena emateko hitzarmena bideratu.

E.5.4. Familia-aisialdia euskaraz bultzatu.

E. 5.4.2. Helburu horrekin dauden ekimenak eta proiektuak katalogatu eta zabaldu.

B.6. GAZTEAK

Euskara Gasteizen oso loturik dago gazteriarekin: zenbat eta gazteago orduan eta euskaldun kopuru handiagoa. 15-19 urte bitarteko gazteen artean, esate baterako % 72,62 dira euskaldunak eta % 13,05 ia euskaldunak (euskara ulertzen dute).

Kale-erabilerak datu apalagoak ematen baditu ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, % 25 inguruk dio euskara duela ohiko hizkuntza (gaztelaniarekin batera, jakina). Jarreretan ere, jarrera nabarmen aldekoagoak ikusten dira gaztetxoek edota gazteen artean.

Indar-ideiak

- Esan izan dugu masa kritikoa handitu ahala errazagoa litzatekeela jauzi kualitatiboak ematea. Gazteen artean, adin-tarte batzuetan, euskararen jakite maila % 70 inguru da eta ulermen-maila % 100tik gertu. Horrek aldaketak ekarri beharko lituzke Udalaren gazte-politiketan ere bai.
- Aukerak sortu behar dira gazteek euskararen gainean gogoeta egiteko eta euskararen inguruko planteamendu propioak egiteko: gazteen artean hizkuntza aktibismoaren ideia mahairatu. Horrekin oso lotuta, jarraitu beharra dago gazte-sareak osatzen: kulturaren inguruan, hizkuntza aniztasunaren inguruan... Euskara ardatz izango duten sareak sortzen lagundu behar dugu.
- Gasteizera ikastera datozen gazte unibertsitarioen egoera ez da sarri kontuan hartu. Eragina dute hiriaren egoera soziolinguistikoa eta horri etekina atera beharko genioke.

Erronka eta ekintzak

E.6.1. Euskarazko kulturgintzaren transmisioan lan egin. Gazteak euskarazko kulturgintzara hurbildu, eta euren sormena landu.

Ikus. Kultura atala

E.6.2. Gazteak ahaldundu, euskararen erronkei aurre egiteko

E.6.2.1. Ikastetxeetako ikasleen euskara batzordeak antolatu eta sustatu dira DBH eta Batxilergoan. Helburua da gazteek inizatiba hartzea ikastetxeetako dinamikan. Horretarako formazio eta dinamizazio saioak antolatu bi urtean behin.

E.6.2.2. Gazteria Zerbitzuarekin batera HIGA2020 topaketa antolatu. HIGA hizkuntza gutxituetako ekintzaille gazteen topaketa da. Bi aldiz antolatu da dagoeneko: azkena, 2018an, Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen testuinguruan.

E.6.2.3. Hizkuntza-ahalduntzea. Formazioa eta sentsibilizazioa da aldi berean. Adin-tarte eta formatu ezberdinekin jardun nahi da: euslizer, ginkana, ekolingua eta abar.

E.6.2.4. Youtuber, gamer edota sare sozialen mundu horretan hizkuntzaren aktibismoa sartzeko aukerak aztertu eta proiektu bat martxan jarri.

E.6.3. Arabako Campusaren inguruan dagoen potentziala balioetsi eta erabili

E.6.3.1. Gazteria Zerbitzuarekin eta Arabako Campusarekin batera, ekitaldi partekatuak antolatzeko bideak ikusi. Unibertsitatean dagoen potentzialari etekina ateratzea eta hiriaren eta Campusaren arteko zubia egitea da helburua.

B.7. MIGRAZIOAK

Gasteizen erroldatutako populazioaren erdia ez da bertan jaioa: % 36 beste autonomia batetik etorri dira, eta % 13, atzerritik. Bertoko biztanleen % 9,3k ez du espainiar nazionalitatea, horietako batzuk estatuan jaiotakoak izan arren.

Gasteiz hiri anitza da. Aniztasuna errealitate bat da. Gasteizko Udalaren Aniztasun Planak dioen moduan kontua ez da kultur aniztasuna sustatzea, baizik eta aniztasunaren kultura sustatzea.

Hiriak hazten jarraitzen du era apalean bada ere: % 0,7 eta % 1 bitartean urtero. Hazkunde horren parterik handiena migrazio-mugimenduei dagokie. Esan behar da, halaber, populazio horrek mugikortasun handia duela: hazkundera 2.000 biztanle inguru bada ere, 10.000 inguru izan daitezke urtero Gasteizera iristen diren atzerritarrak.

Indar-ideiak

- Gaiak trataera integrala behar du. Gainditu egiten ditu Euskara Zerbitzuaren ahalmena eta Udalaren eskumena. Euskara planak ildo batzuk jorratu ahal ditu, baina besterik ez. Kezka berezia sortzen du, esate baterako, ikasle etorkinen kopuru handiak eskola gutxi batzuetan kontzentraturik egotea.
- Hizkuntzari dagokionez, beharrezkoa da eragile guztien arteko komunikazioa eta lankidetzaz sortzea eta indartzea.

Erronkak eta ekintzak

E.7.1. Informazioa bideratzea edo trukatzeari erraztu, elkarten arteko sarea sortuz. Elkar ezagutzeko eta elkarren berri izateko bideak sortu.

E.7.1.1. Eragileen arteko komunikazio-kanala sortu, Udalaren Aniztasun Zerbitzuarekin batera.

E.7.1.2. Anhitzak2 antolatu. **Anhitzak** ekimena aurreko plangintzaldian antolatu zen lehen aldiz. Gasteizen dauden hizkuntza komunitateak identifikatu, haiekin harremanetan jarri eta goiz bateko jardunaldi bat antolatu, hizkuntzari buruzko kezka partekatze. Prozesuari eman nahi zaio garrantzia, jardunaldiari baino areago: kulturarteko harremanak sortzea, elkar ezagutzea eta kezka partekatzea.

E.7.1.3. Harrera-planak eta hizkuntza-irizpideak. Gaiak lantzeko eta eragileak formatzeko saio bat antolatzea.

E.7.1.4. Zurrumurruen kontrako dinamikaren zabalkundean parte hartu. Euskalgintza horretan inplikatu.

E.7.2. Baliabideen berri eman eta baliabide berriak sortu.

E.7.2.1. AISA ikastaroa elkarteetan antolatzeke aukera ematea.

E.7.2.2. Euskara Zerbitzuak ikastetxeei zuzentzen dizkien zerbitzuetan aniztasuna lantzeko eskaintza egin.

E.7.2.3. Euskara Zerbitzuaren deialdietan, batez ere, guraso-elkarteei zuzendua denean, aniztasuna lantzea proposatzen duten proiektuak hobetsi eta besteen gainetik baloratu. Guraso elkarteak ez ezik, ikastetxeak berak aurkezteko aukera zabaldu.

E.7.2.4. AUZOKO proiektuari jarraipena eman. AUZOKO proiektuak euskaraz dakiten pertsonak eta atzerriko jatorria dutenak harremanetan jartzen ditu, hainbat dinamikaren bidez elkar ezagutzeko eta euskarari sarbidea emateko. Talde bat dago Alde Zaharrean, nahiko kontsolidatua. Horrez gain, Gasteiz mailako bigarren talde bat antolatzeke ahaleginak egin.

B.8. HELDUEN EUSKALDUNTZEA

Arabako euskaltegietan 5.619 ikasle egon dira 2017-2018 ikasturtean. Hortik 4.500etik gora gasteiztarrak dira. Urtez urte gorabeherak ikusten dira, baina ez oso nabarmenak. Badirudi nahiko datu egonkorra dela. Gutxi gorabehera 17 ikasle dira 1.000 biztanleko.

Ikasleek, ahal duten neurrian, lehen baino modulazio txikiagoak hautatzen dituzte eta, hortaz, behera egin du talde-orduen kopuruak.

Gero eta gutxiago dira A1-ean matrikulatzen direnak eta kopuruak handituz doaz B1 eta B2 mailatan.

Mintzalaguna programan, bestalde, 600-700 pertsonak parte hartzen du urtez urte.

Indar-ideiak

- Euskara ikastearen aldeko giro soziala sortu eta sendotu behar da: euskara ikatea berriro ere “modan” egotea. Horretarako matrikulazio-garaia garrantzitsua da, baina horren aldeko mezua zabaltzeko behar da urte osoan zehar.
- Aurrekoarekin batera, gaur egun nagusitzen ari den motibazio pragmatikoari “kontrapuntua” jarri behar zaio: bestelako motibazioak agerian jarri, helduen euskalduntzearen funtzioa gogoratu eta aitortza egin...
- Gasteiztarrei euskaltegietara hurbiltzeko erraztasunak eman eta zubiak antolatu behar dira: euskara praktikatzeko eta euskaraz bizitzeko espazioak sortu behar dira.

Erronkak eta ekintzak

E.8.1. Euskara ikastearen aldeko giro soziala indartu

E.8.1.1. Matrikulazio-kanpainak egin. Euskalduntzearen irudiari garrantzia eman: berrikuntza, eraginkortasuna, hurbiltasuna, gaurkotetasuna, harremanak zabaltzeko gaitasuna... azpimarratu. Irailean mugarri bat izan daiteke, baina ahaleginak egin behar dira mezua urte osoan zehar presente egoteko.

E.8.1.2. Ekintzak antolatu behar dira, nagusitzen ari den motibazio pragmatikoarekin batera bestelako erreferentziak ere nabarmentzeko eta indartzeko. Adib.: Euskaltegietako ikasle ohi ezagunen mahai-inguruak, Gasteizko euskalduntzearen historia (eta istorioak) ikertzeko beka, hiztun berrien inguruko jardunaldiak antolatu, hiztun berrien hizkuntza-eredua prestigiatu...

E.8.2. Euskara ikasteko erraztasunak eskaini eta publiko berriak erakarri.

E.8.2.1. Udalaren ikastaroak zabaltzeko eta indartu.

E.8.2.1.1. Aisa ikastaroak ikastetxeetan (gizarte etxeetan ere bai).

E.8.2.1.2. Guraso ikastaroak.

E.8.2.1.3. Ikastaroak, 55 urtetik gorakoentzat.

E.8.2.1.4. Gazteen ikastaroak: C1 edo parekoak.

E.8.2.2. Euskara ikasteko dirulaguntzak eman. Deialdia argitaratzearekin batera, bideak jarri urtez urte dirulaguntza ebaluatzeko eta berritzen joateko.

E.8.2.2.1. Herritarrak.

E.8.2.2.2. Gurasoak.

E.8.2.2.3. Begiraleak eta entrenatzaileak. Oro har haur eta gazteekin lan egiten duten profesionalak.

E.8.2.2.4. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako profesionalak (Merkataritza Ganberarekin batera).

E.8.2.2.5. Gazteak (aurrerago adostuko da xede-publikoa nola mugatu).

E.8.2.2.6. Udaleko langileak.

E.8.2.3. Euskaltegien lana errazteko dirulaguntza.

E.8.2.4. Ikastaroen eskaintza elkarte, enpresa edota entitateetarako.

E.8.3. Zubigintza. Ikasleei (zein ikasle ohiei) euskara praktikatzeko eta euskaraz bizitzeko espazioak eta aukerak eskaini.

E.8.3.1. Mintzalaguna proiektua babesten jarraitu.

E.8.3.2. Euskaltegien proiektuak diruz laguntzeko, batez ere helburu horiek baloratu. Halaber, euskaltegi edo euskaltegi-sare baten eremua gaintzen duten ekintzak lehenetsi. Ekintza horietako batzuk euskaltegi guztion artean antolatzeko moduak aztertu.

B.9. SENTSIBILIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA

Euskaraldia hizkuntza-ohiturak astintzeko eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa bat izan da, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz egitea proposatu duena. Herri-ekimena eta ekimen instituzionala uztartu nahi izan ditu, eta herriz herriko dinamika indartu.

13.000 pertsonak eman zuten izena Gasteizen.

Goiz da irakurketa eta balorazio xehea egiteko eta goiz da datozen urteetan horrek zer emango duen jakiteko. Hainbat proposamenen arabera, lan egiteko ildo berri eta indartsua zabaldu daiteke. Ez dago zalantzarik, beraz, 2019-2022 epealdiko ekintza planak horretan jardun beharko duela, gaur-gaurkoz erabat zehazterik ez badago ere.

Indar-ideiak

- Euskaraldia, ziur aski, mugarri bat izan da hainbat arlotan eta jarraipena izango du. Zaila da aurreikustea datozen urteetan zer nolako dinamika izango duen, baina Gasteizko Udala dinamika horien parte izan beharko litzatekeela baloratzen da.
- Horrekin batera, Gasteizen arnagune funtzionalak sortu eta elikatu beharko lirateke: normaltasun osoz, defektuz, euskaraz funtzionatzen duten programak eta espazioak.

Erronkak eta ekintzak

E.9.1. Euskaraldiaren inguruan sortutako harremanak mantendu eta koordinazioa bermatu.

E.9.1.1. Koordinazioa mantendu eta sendotu

E.9.2. Euskaraldiaren inguruan datozen urteetan sortuko diren proposamenak eta ekintza-plan hau berau aztertu, bateragarritasuna bermatzeko.

E.9.1.2. Euskaraldia 2019-2020. Udalaren parte-hartzea bermatu.

C. KUDEAKETA EREDUA

Gasteizen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren baitan, zinez uste dugu ZER egiten dugun bezain garrantzitsua dela NOLA egiten dugun, edo – beste era batez esana– NONDIK egiten dugun. ESEP dokumentuaren kokapena printzipioen atalean zehaztu dugu:

- Euskararen gizarte-erakundeekin elkarlanean egina
- Arloz arlo gizarte-eragileen inplikazioa bilatuz
- Udalak berak pausoak emanaz, eta eredugarritasuna landuz
- Jarraipenerako mekanismoekin, batez ere, Elkargunearen bidez
- Baliabideez hornitua
- Udal osoaren inplikazioa bilatuz
- Komunikazioari garrantzia emanaz

Halere, zenbait kasutan puntu horiek ekintzetara ekarri behar direlakoan gaude, batez ere: zeharlerrotasuna, jarraipena eta ebaluazioa eta komunikazioa.

Erronkak eta ekintzak

C.10. ZEHARLERROTASUNA

E.10.1. Zeharlerrotasuna. Pausoak eman udal osoan euskararen eta normalizazioaren perspektiba integratzeko.

E.10.1.1. Udalean ikastaroa edo formazio-saioa antolatu: euskararen normalizazioa eta zeharlerrotasuna, euskararen beharrak Gasteizen, hizkuntza lidergoa...

E.10.1.2. Zeharlerrotasunaren gaia euskararen ikuspegitik landu eta Gizarte Kontseiluan horretan jardun, gaia beste elkarguneetara ere iristeko.

E.10.1.3. Lantalde iraunkor bat sortu, batez ere aisialdi eta kirol arloei dagokienez. Gainontzeko gaietara dagokienez, zerbitzuekin batera adostu zenbaterako koordinazioa behar den eta horretarako prozedurak: batez ere, merkataritza- eta kultura-zerbitzuak.

E.10.1.4. Udalak diruz laguntzen eta babesten dituen ekimen edo ekitaldietan hizkuntza egoera eta inpaktua ebaluatu. Urtez urte, ebaluatu nahi diren ekimenak aukeratu eta emaitza Elkargunean aurkeztu. Elkargunearen iritzia jaso eta horri buruzko gomendio-txostena egin.

C.11. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA. PARTE-HARTZEA.

E.11.1. Euskara **Elkargunea** dinamikoago egin, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarraipena egiteko, besteak beste.

E.11.1.1. Parte-hartzerako Zerbitzua egungo eredia ebaluatzen ari da. Horrekin batera Elkargunearen saio monografiko bat egin, Elkargunearen funtzionamenduz.

E.11.1.2. Elkargunearen baitan lan-mahaien edo lantaldeen dinamika indartu.

E.11.1.3. Elkargunearen urteko planifikazioa egin, aurkeztu eta onartu. Elkargunearen bilera batean urteko kudeaketa-plana, aurrekontua eta komunikazio-plana aurkeztu.

E.11.2. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren **jarraipena eta ebaluazioa** bermatu

E.11.2.1. Euskararen Foru Zerbitzuarekin batera ESEP planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle-sistema bateratua eratu, Euskararen Adierazle Sistemarekin (EAS) bateragarria eta osagarria.

C.12. PLANAREN ETA EUSKARAREN KOMUNIKAZIOA

E.12.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren **komunikazioa** egin

E.12.1.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren bloga sortu, komunikazioa arinagoa izateko.

E.12.1.2. Urtez urte, urteko kudeaketa-planarekin batera, urteko komunikazio-plana sortu.